

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LANTARONGO UDALA

#### **Behin betiko onestea lanpostu zerrendaren aldaketa**

Lantarango Udalak, 2019ko maiatzaren 8ko ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen ezestea udalaren lanpostu zerrenda aldatzeko espedientearen aurka jendaurreko aldian aurkeztutako alegazioa, eta behin betiko onespena ematea espedienteari. Honela geratuko da:

Aguazil-udal zaindari funtzionario plaza amortizatzea eta askotariko zerbitzuetarako behargin funtzionario plaza sortzea. Hona hemen horren ezaugarriak: eskala: Administrazio Berezia; azpieskala: behargin peoia; lanpostua: askotariko zerbitzuetarako behargina; taldea: C2; destino-osagarria: Udalhitzeko 9. maila; berariazko osagarria: 15.138,76; arduraldia: ehuneko 71,43; hizkuntza eskakizuna: 1, derrigortasun datarik gabe; titulazioa: eskola gradua, 1. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea; betekizunak: B kategoriako gidabaimena edukitzea; egoera: hutsik.

Erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako dagokion epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea egongo da, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio udalari, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Komunioi, 2019ko maiatzaren 10a

*Alkatea*

*JAVIER URIARTE JAIRO*